

2014ko Berdintasun Gunearen unitate mugikorraren ezaugarri nagusiak

Fororako euskarri gisa, unitate mugikor bat baliatzen da, erabilera anitzeko gune ibiltari gisa. Unitateak aukera ematen du hainbat baliabide elkartzeko eta ahalik eta informazio gehien biltzeko modu erraz eta praktikoan, beti langile espezializatuek lagunduta eta gainbegiratuta. Kanpoaldean guztira 13,80 m neurtzen dituen ibilgailu bat da (autobus bat), eta bi alboak ateragarriak dira, azalera handiko barrualde diafanoa baliatzeko aukera eskainiz. Unitate mugikorrak bi sarrera ditu: sarrera nagusi bat atzealdean, barandadun eskaileren bitartez, eta beste sarrera bat aurrealdean, mugikortasun urriko pertsonentzat edo gurpil-aulkian doazentzat, eragingailu elektromekanikoko igogailu baten bitartez.

Ondoren, ibilgailu egokituaren simulazio bat aurkeztuko dugu, barrualdetik nahiz kanpoaldetik:




Unitate mugikorraren barrualdeak 40 m²ko azalera erabilgarria dauka, gehienez 25 lagunentzako lekuarekin, gutxi gorabehera. Ez dauka pertsonen zirkulazioa eragozten duen oztoporik barruan, ezta gurpil-aulkian badoaz ere.

Bi alboetan 7,8 metroko luzera eta 2 metroko altuera duten paretak ditu, Berdintasunarekin eta Emakunderekin erakunde gisa lotutako hainbat gairi buruzko azalpenezko kartelak aurkezteko.

Unitate mugikorrak argiztapena eta aire egokitua dauka, ezaugarri horietako erabilera publikoko instalazioetarako egokiak.

Ondoren, barruko plana aurkeztuko dugu, unitate mugikorraren neurri guztiekin:

medidas en centímetros / zentimetroetako neurriak



Ekipamendua

Unitate mugikorren erabilgarri dagoen multimedia-ekipamendua:

- Erakusmahai bat eta liburuxkentzako hainbat erakustoki
- Aulki altu bat
- 12 ordenagailu eramangarri, Microsoft Windows eta Linux (Software librea) sistema eragilearekin
- 25 aulki pilagarri
- 120 x 80 cm-ko 3 mahai tolesgarri
- Soinu estereofonikoa barrualdean.
- 42 hazbeteko ikus-entzunezko pantaila bat, ordenagailu bati konektatua, internet-konexioarekin, formatu ezberdineko artxiboekin aurkezpenak egiteko aukera emanaz.
- 19 eta 23 hazbete bitarteko bi pantaila, batek teklatura ere badu. Multimedia ezaugarriak dituzten ordenagailuen bidez informazio puntuak eratzten dituzte.

Aulkiak eta mahaiak kokatzeko moduak, garatu nahi den jardueraren arabera:





Gailuen eta guneen erabilera aukerak:

- Paretan erabilera erakunde partaideak hornitutako argazkiak, kartelak eta abar erakusteko. Derrigorrezkoa: paretan finkatzeko sistema hondoko paretan eraginik ez duten produktuen bitartez (aldebiko zinta, atxikitze txikiko belkroa, etab.)
- Aulki erabilgarrien kokapen ezberdinak, ekintza bakoitzaren premien arabera: borobilean, taldeko lanak, mintegiak, etab. Mahaiak ere erabili ahal izango dira, behar izanez gero.
- Ordenagailuak: interneterako sarbidea edo aplikazio interaktiboen erabilera on-line edo off-line (erabili nahi den softwarea aldeztu aurretik jakinarazita eta horren ezaugarriak eta arrisku informatikoak aztertuta: malware, birusak... kasu guztietan).
- 42 hazbeteko ikus-entzunezko pantaila bat, ordenagailu bati konektatua, internet-konexioarekin, formatu ezberdineko artxiboekin (pdf, Microsoft Office, LibreOffice, bideoa, multimedia, eta abar) aurkezpenak egiteko aukera emanez. Erabili nahi den softwarea aldeztu aurretik jakinarazita eta horren ezaugarriak eta arrisku informatikoak aztertuta: malware, birusak... kasu guztietan.
- Ikus-entzunezko pantailaren erabilera dokumentalak edo filmak ikusteko, betiere euskarri digitalean (DVD, CD, etab.)
- Barrualde diafanoaren erabilera (mahairik eta aulkirik gabe).